

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

35. zenbakia

Data 2007-02-19

4508 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Donostia Kulturako aretoen dohaineko erabileraren araudia. Behin betiko onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Idazkaritza Nagusia

Donostia Kulturako Aretoak dohainik erabiltzeko arauen behin betiko onespena.

2006ko apirilaren 25eko Donostiako Udaltzako Donostia Kulturako aretoak dohainik erabiltzeko arauak behin-behinekoz onartu zituen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzat zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epea amaituta ez da iradokizunik ezta alegaziorik ere aurkeztu eta ondorioz, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko, 49 c) artikuluan agintzen dena aplikatuz, behin-behineko akordioa behin betiko bihurtu da.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Estatutuak argitara ematera goaz.

Donostia, 2006ko otsailaren 2a. —Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Idazkari Nagusia.

(775) (1625)

DONOSTIA KULTURAKO ARETOAK DOHAINIK ERABILTZEKO ARAUAK

ZIOEN ADIERAZPENA

1995ean Donostia Kulturako aretoen doako erabilerarako irizpideak bateratzeaz gain balizko erabiltzaileei izapide administratiboak erraztuko zizkien araudi bat ezartzeko premia detektatu ondoren, Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak erabilerako lehen araudi bat onartu zuen, Zuzendaritza Batzordearen geroztiko hainbat akordioaren bidez aldatetak izan dituen.

Hala eta guztiz ere, araudian gabezia batzuk hauteman dira, kasu guztiak biltzen dituzten eta orain arteko araudi guztiak bateratzeko balioko duten erabilera-arauak onartzeko beharra agerian uzten dutenak.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskabideak.

Eskaerak Donostia Kulturako Erregistroan edo 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkez daitezke, horretarako ezarritako inprimakian eta gutxienez hamabost eguneko aurrerapenarekin, bileretarako izan ezik, horretarako egunean bertan ere eskatu ahal izango baita.

2. artikulua. Emateko irizpideak.

1. Areto bat dohainik erabiltzeko baimena emateko, honako irizpide hauek nagusituko dira:

— Zentroaren programazioa.

— Guneen erabilgarritasuna.

— Langileriaren egoera.

— Ordutegiak.

2. Egun eta areto bererako eskaera bat baino gehiago jasoko balira, lehentasuna Erregistroan lehenengo aurkeztu den eskaerari emango zaio.

3. artikulua. Aretoen erabileraren helburua.

1. Arau hauen hirugarren atalean aurreikusten diren erabilpenak bakarrik baimendu ahal izango dira. Beste edozein erabilpen Donostia Kulturako Zuzendaritzak aztertu beharko du.

2. Egingo diren ekitaldiak irekiak eta doanekoak izan beharko dira, salbu eta zenbait kasu berezi, Donostia Kulturako Zuzendaritzak espresuki baimendu beharko dituenak.

3. Egingo diren ekitaldiak zentroen ordutegietara egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta Donostia Kulturako eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordutegi honetatik kanpo geratzen den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontutan hartuta.

4. Areto bat erabiltzeko baimena izateak ez du esan nahi eskatzaileak barruan leku pribaturik izan dezakeenik ez eta zentroa bere elkartearen egoitzatzat har dezakeenik ere.

Gainera, baimen hau Hiri Alokairuen Legetik kanpo geratzen da bereziki.

4. artikulua. Aretoak eskatzen dituztenen eskubide eta betebeharrak.

1. Eskatzaileak ekitaldian parte hartuko duten pertsona guztiek hurrengoak beteko dutenaren konpromisoa hartzen du:

— Donostia Kulturako Segurtasun eta Higienari buruzko arauak.

— Ohiko erabilpen ordutegia.

— Donostia Kulturak zehaztuko dituen sarrerak eta erabilpenerako arauak.

2. Eskatzaileak honako ardura hauek hartuko ditu:

— Aretoa zegoen egoera berean uztearena.

— Erabilpenagatik edo mantenimendu-ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.

3. Donostia Kulturak aretoetan egin nahi den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztapen aldeztatik aurretik baimendu beharko du. Kasu horretan, aldaketak behin-behineko edo aldi baterakoa izan beharko du beti, eta ezin izango dira zoruetan, horretan edo sabaian finkapenak behar dituzten elementuak erabili.

4. Baimen horrek ez du Donostia Kulturako langileak lanerako erabiliko direnik esan nahi, ez eta bere ekipamendu teknikoa edo materialarena ere. Ekipamendua dela eta premia bereziak badaude, eskaeran bertan azaldu beharko dira eta Donostia Kulturako Zuzendariaren baimena izan beharko dute.

5. Telefonoa edo bulegoetako materialak (fax, fotokopiagailua) ezingo dira erabili, ezta aretotik kanpoko beste edozein zerbitzu ere.

6. Donostia Kulturak, ekitaldia burutuko duten pertsonen sarrerak edo irteerak kontrolatzeko, zinpeko guardia baten presentzia beharrezkoa dela irizten badu, horren gastuak eskatzailearen kontura joango dira, baita kontratatu beharreko aparteko langileriarena ere.

7. Donostia Kultura laguntzaile moduan agertuko da baimendutako erabilpenak sortuko duen publizitate guztian.

5. artikulua. Donostia Kulturaren kontrol-eskumenak.

Donostia Kulturak honako eskubide hauek gordeko ditu berarentzat:

— Aretoaren erabilpena dela eta egindako publizitatea kontrolatzearena.

— Arau hauek betetzen ez badira edo instalazioa Donostia Kulturako ekitaldietarako behar baldin bada, baimena deuseztatzearena.

II. TITULUA

ARETO MOTA BAKOITZERAKO ARAU ESPEZIFIKOAK

6. artikulua. Kultur Etxeak.

1. Aretoaren eta bere ekipamenduaren erabilpen puntuala da baimentzen dena.

2. Ekitaldiak egiteko aretoak:

Eragin eremua gutxienez kultur etxea dagoen auzoa duten irabazi asmorik gabeko gizarte, kultur eta kirol izaerako elkarte edo entitateei bakarrik emango zaie baimena.

Ekitaldia gizarte, kultur edo kirol izaerakoa izan beharko da, eta Kultur Etxearentzat interesgarria, beraren programazioaren arabera.

3. Bilerak egiteko aretoak:

Pribatuak diren bileretarako, goian aipaturiko entitate eta elkartez gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izango dira, bilerak kultur, gizarte edo kirol izaera baldin badu.

4. Hauteskunde kanpainetarako aretoak:

Kultur Etxeetako aretoak utzi ahal izango dira alderdi politikoek edo hauteskundeetarako koalizioek antolatutako ekitaldietarako, baina hauteskunde garaietan bakarrik, eta beti ere zentroan programatuta dauden jardueren arabera.

5. Beste zenbait areto:

Araudi honetatik kanpo geratzen diren kasuetan, alokairua kobratuko da erabilpena egiteagatik, Donostia Kulturaren une bakoitzean indarrean dauden prezio publikoen arabera.

7. artikulua. Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoa.

1. Liburutegiak berak antolatzen dituen edo partaidea den ekitaldietarako erabiliko da.

2. Donostia Kulturako Zuzendaritzak eta Liburutegi Zerbitzuak interesgarritzat jotzen dituzten liburu edo literatur munduarekin lotutako ekitaldietarako ere erabili ahal izango da.